# BIZITEGI ERAIKINA — PASAIA 6

**D MAILA**





**Egilea eta data: Lucas Alday; 1934**

**Deskribapena**

Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina eta bost goi oin dituena, azkena atzeraemana, eta, horretan, erdialdeko begiratokiak galeria ireki bihurtu dira. Horrez gain, eraikinak 5. oinarekiko oso atzeraemana dagoen beste oin bat du. Oin hori “etxebizitza ekonomiko” gisa erantsi zen, Lucas Aldayren 1936ko proiektuari jarraituta. Fatxadan hormigoia eta hormatal entokatuak erabili dira. Nafarroa Hiribidea 44ren eta 46ren eraikinen bertsio egokitua da, kalearen ordena txikiagora egokitua alegia. Begiratokiaren eta balkoiaren txandakatzearen konposizioa egokitu egin da eraikin honetan, eta erdialdeko begiratokian eta alboetako balkoietan gauzatu da. Jatorriz proiektu komuna Nafarroa Hiribidea 44-46rekin eta Pasaia 4rekin.

**Babes erregimena**

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: behe oinaren eta bertako baoen konfigurazio unitarioa betetzearekin lotzen direnak.